

.../2020 DEKRETUA,.....(e)koaren...(e)koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren eta hitzarmenen araubidea arautzen dituen.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen aginduarekin bat etorriz, dekretu honen helburua da araubide orokor eta amankomun bat ezartzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuak ekimen pribatuarekin ituntzeko.

Dekretuak, araubide hori erregulatzeko orduan, oinarritzotzat jotako alderdiak baino ez ditu jasotzen, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 61.2 artikularekin bat etorriz, eta aintzat hartuz administrazio bakoitzak, esparru orokor hori errespetatuz, bere ekintza itundua arautzeko dituen ahalmenak, hala aurreikusita baitago lege horren zortzigarren xedapen gehigarrian.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 60.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, itun-araubidea da administrazio publikoek duten formuletako bat Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuen prestazioa antolatzeko, beste formula hauekin batera: zuzeneko kudeaketa; zeharkako kudeaketa administrazio publikoen kontratazioa arautzeko esparruan, eta hitzarmenak egitea irabazi-asmorik gabeko erakundeekin.

Lege horrek, 60.1, 61.1 eta 71.1 artikuluetan ezartzen duenez, bide arruntzat jotzen du itun-araubidea baliatzea lankidetzan publiko-pribatua antolatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuak emateko garaian. Edonola ere, zeharkako kudeaketa ere baliatu dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, zuzeneko kudeaketa baztertzen dutenean edo, zerbitzuen izaera berritzailea dela eta, itun-araubidera jotzea ezinezkoa denean. Itun-araubidea baliatuko da, zehazki, katalogoko zerbitzuak ematen dituzten eta horretarako beren titulartasuneko zentroak dituzten ekimen pribatuko erakundeekin lankidetzan antolatzeko, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta dekretu honetan ezarritako baldintzetan. Itun-araubidearen xede nagusiak, hortaz, zentroetako plazak erreserbatu eta okupatzea eta zentro horien kudeaketa integrala izango dira.

Era berean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 15.1 artikulua ohiko bidetzat hartzen du 12/2008 Legean ezarritako itun-araubidea, lankidetzan publiko-soziala antolatzeko arau horrek definitzen duen esku-hartze sozialaren eremu zabalagoan.

Dekretu honetan itun-araubide horri deitzen zaio, hain zuzen ere, ituna, edo, eremuaren arabera, itun soziala, ohiko bidea baita esku-hartze sozialaren eremuan lankidetzan publiko-pribatua antolatzeko. Nolanahi ere, dekretu honek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baino ez du arautzen araubide hori.

Tresna ez-kontraktuala da itun soziala, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen prestazioa eta esku-hartze sozialaren eremuan erantzukizun publikoko zerbitzu guztien prestazioa antolatzeko baliatzekoa, interes orokorreko gizarte-zerbitzuen multzoaren antolamendua gidatu behar duten printzipioei jarraituz. Hitzarmenek bezala, lankidetzan du oinarritzat, hau da, zerbitzuaren arduraren duen administrazio publikoaren eta erakunde itunduaren arteko lankidetzan, eta oinarritzat du, halaber, erakunde itunduak zerbitzua emateko beharrezkoak diren ondasunen gainean eta, zehazki, zentro itunduen gainean duen titulartasuna.

Bestalde, hitzarmenak tresna egokiak dira (irabazi-asmorik gabeko) gizarte-ekimenarekin lankidetzan aritzeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuak ematen, itun-araubidea ez aplikatzea komenigarritzat jotzen den kasuetan, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 69. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hitzarmenak, gainera, itun-araubidearen baliokideak dira, eta haren ezaugarri eta betekizunak aplikatuko zaizkie, baldin eta bateragarriak badira hitzarmenen izaerarekin; batik bat, aplikatzekoak izango zaizkie modulu ekonomikoak, sarbide-betekizunak eta diskriminazio positiboko neurriak arautzen dituzten arau-xedapenak, bai eta programa-kontratuen bidezko formalizazioa ere.

Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. kapituluak, aintzat hartuz Kontuen Epaitegiak 2010eko azaroaren 30ean emandako 878. irizpena, lehenengo aldiz sistematizatzen du hitzarmenatarako oinarriko araubide oso bat, eta, han finkatzen ditu hitzarmenen gutxieneko edukia, motak, iraupena, azkentzea eta dagokion kontu-epaitegiak egin beharreko kontrola. Araubide hori aplikatzekoa izango da araubide espezifikoak eskumen eskusiboko arlo batean aurreikusten ez duen guztian.

Itun-araubidearen bidez, arretaren kalitatea bermatu nahi da, Batasunaren ikuspegiarekin eta gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin bat etorriz. Hartara, finantzaketaren, sarbidearen eta kontrol publikoen bitartez, eta gardentasunaren, publikotasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraituz, gizarte-zerbitzuak antolatu, eman eta finantzatu ahal izango dira, halako moldez non posible izango baita erantzun unibertsala, solidarioa, eraginkorra, efizientea, azkarra, hurbila, partaidetzazkoa, prebentziozkoa, pertsonalizatua, integrala... eta sozial eta ekonomikoki jasangarria ematea.

Formula horrek babesa du, halaber, Kontratazio Publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauan eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2012/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora. Eta babesa dute, azken buruan, gizarte-zerbitzuen ezaugarrietan ere.

Gizarte-zerbitzuak eta, zehazki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuak interes orokorreko zerbitzuak dira (pertsonentzako zerbitzuak), eta printzipiotzat dituzte, batik bat, unibertsaltasuna, elkartasuna, efizientzia ekonomikoa eta egokitasuna; zerbitzu horiek dira, hain zuzen ere, <<gizarte-segurantzaren araubideak –bizitzaren arrisku nagusiak estaltzen dituztenak– bai eta pertsonen zuzenean ematen zaizkien funtsezko beste zenbait zerbitzu ere, eginkizun prebentiboa, kohesiozkoa eta gizarte-inklusiokoa betetzen dutenak>> (Europako Interes Orokorreko Zerbitzuetarako kalitatezko esparrua, COM (2011) 900 azkena).

Interes orokorreko zerbitzu horien artean daude esku-hartze sozialaren arloko zerbitzuak, zeinak definituta baitaude Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 4. artikuluan; hau da, honako hauek: gizarte-zerbitzuak; enplegurako sarbidearen sustapena, eta beste zenbait jardura, artikulua horretan aipatzen den helburua betetzeko garatzen direnak gune soziolaboralean, soziosanitarioan, sozioedukatiboan, soziokulturalean, soziohabitacionalean, soziojudizialean edo beste batzuetan. Gainera, erantzukizun publikoko zerbitzuak direnean, artikulua horretan bertan honako hauek ere hartzen dira interes orokorreko gizarte zerbitzutzat, normalean izaera ekonomikokoak: “Esku-hartze sozialaren esparruko erantzukizun publikoko prestazioak eta zerbitzuak interes orokorreko zerbitzuak dira, eta zehazkiago, interes orokorreko gizarte-zerbitzuak, askotan izaera ekonomikoa izan ohi dutenak, Europar Batasunaren erreferentziazko araudian kontzeptu horiek definituta dauden moduan, euskal administrazio publikoek zuzenean ematen dituztenean, bai eta euskal administrazio publikoek ekimen pribatuaren laguntza duten kasuetan ere.”

Hain zuzen ere, pertsonentzako zenbait zerbitzuren kasuan, hala nola zenbait zerbitzu sozial, sanitario eta hezkuntzakoren kasuan, honako hau ezartzen du zerbitzu horien kontratazio publikoari buruz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentzarauaren 114. kontuan hartuzkoak: “Estatu kideek eta botere publikoek orain ere askatasuna izango dute beren kabuz zerbitzu horiek emateko edo gizarte-zerbitzuak antolatzeko, kontratu publikoak egin beharrik gabe; esate baterako, zerbitzu horien finantzatze soilaz edo botere adjudikatzaileak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak emanez, mugarik edo kuotarik gabe, baldin eta sistema horrek behar adinako publikotasuna bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen baditu”.

Aurreikuspen hori jasotzen du Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, atariko IV. apartatuan, eta 11.6 artikuluan, zeinean honela xedatzen baitu: “Lege honetatik kanpo geratzen da erakunde pribatuen bidez gizarte-zerbitzuak ematea, baldin eta zerbitzu-prestazio hori

egiten bada kontratu publikoak egiteko beharrik gabe, besteak beste honako bitarteko hauen bidez: zerbitzu horien finantzaketa soila, edo botere adjudikatuak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei lizentziak edo baimenak emanda, mugarik eta kuotarik ezarri gabe. Sistema horrek behar adinako publikotasuna bermatu behar du eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete”.

Bestalde, 2014/24/EB Zuzentarauak, gizarte-zerbitzuetarako eta beste zenbait zerbitzu espezifikotarako kontratazio-araubide sinplifikatu bat ezartzeaz gainera, honako hau adierazten du: ”Kontuan hartuta nolako garrantzia duen testuinguru kulturalak eta zer delikatuak diren zerbitzu hauek, estatu kideei jarduteko tarte zabala eskaini behar zaie, zerbitzu-hornitzaileen hautaketa erarik egokienean antola dezaten. Zuzentzari honen arauak aintzat hartzen dute inperatibo hori, soilik ezartzen baitute gardentasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipio nagusiak bete daitezela, eta bermatzen baitute botere esleitzaleek, zerbitzu-hornitzaileak hautatzean, kalitate-irizpide espezifikoak aplikatu ahal izango dituztela, hala nola: Gizarte Babeseko Batzordeak argitaratutako gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko Esparruan ezarritako irizpideak”.

Esparru horrek nabarmentzen duenez, gizarte-zerbitzuak, pertsonari zuzendutako zerbitzuak diren aldetik, eta gizakien bizi-premiei eta, batik bat, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen premiei erantzuteko diseinatutako zerbitzuak diren aldetik, haien helburu eta ezaugarriak aintzat hartuko dituen antolamendu-, hornikuntza- eta finantzaketa-era jakin bat behar da, honako ezaugarri hauek dituen: a) arretaren integritatea; b) erabiltzaileentzako arreta pertsonalizatua eta dibertsitate egokitua; c) harreman pertsonala zerbitzuaren hartzailearen eta hura ematen duenaren artean; d) kontuan hartzea harreman asimetrikoa dagoela hornitzaile eta onuradunaren artean, hornitzaile/kontsumitzaile merkataritza-harremanaz bestelakoa; e) hornitzailearen eta erabiltzailearen arteko hurbiltasuna eta, aldi berean, lurralde guztietan ziurtatzea zerbitzuak eskuratzeko berdintasuna; f) zerbitzuen hornitzaileak autonomia izatea gizarte-premien izaera askotarikoa eta ebolutiboa asetzeko; g) elkartasunaren eta finantzaketa publikoaren printzipioak aplikatzea, zerbitzuak eskuratzeko ekitatea ziurtatzeko, alde batera utzita osasun-egoera eta diru-sarrerak; h) irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta boluntarioek gizarte-zerbitzuak emateko garaian betetzen duten eginkizunaren garrantzia, zeinak erakusten baitu herritarrek nolako gaitasuna duten eta zer ekarpen egiten dioten gizarte-inklusioari, tokiko komunitateen gizarte-kohesioari eta belaunaldi arteko elkartasunari.

Antolamendu-, hornikuntza- eta finantzaketa-era horiek bat datoz, neurri handi batean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautu behar duten printzipioekin eta Batasunaren arreta-ereduarekin edo -ikuspegiarekin, zeinak definituta baitaude Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7. eta 8. artikuluetan, hurrenez hurren. Alderdi horiei guztiei egokitzen zaizkie itun-araubidera sartzeko betekizunak nahiz diskriminazio positiboko neurriak, dekretu honetan aurreikusten direnak.

Horrenbestez, jakinda desberdintasunak izan daitezkeela eremuen artean, zentro moten artean edo egoeren artean (desgaitasuna, mendekotasuna, bazterketa, babesgabetasuna) edo arloen artean (haurrak, emakumeak, adinekoak...), itunaren erakunde esleitzaleek sustatu behar dute, dekretuan aurreikusitako sarbide-betekizunak eta beste zenbait neurri aplikatuz, batetik, itunaren erakunde esleipendun bakoitzaren kudeaketa eta esku-hartzea ahal denik eta koherenteena izan dadila Batasunaren arreta-ikuspegiarekin eta gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin, eta, bestetik, sare osoa pixkanaka lerrokatu dadila aipatutako bi-biek.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera sustatze eta bermatze aldera –eskubide subjektiboa baita–, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 5. artikuluan, sistema hori definitzen du erantzukizun publikoko sare publiko gisa, titulartasun publikoko eta titulartasun pribatu itunduko prestazioz, zerbitzuz eta ekipamenduz osatua.

Bada, erantzukizun publikoko sarearen izaera mistoarekin (eredu mistoarekin) koherentziaz, eta haren definizioa are gehiago zehazte aldera, lege horren 7. artikuluan zehazten da zein diren sistema arautuko duten printzipioak.

Erantzukizun-printzipioari dagokionez (a letra), lehenbizi, zehazten du zer prestazio izan behar diren zuzeneko kudeaketa publikokoak, eta, ondoren, osagarri gisara, honako hau ezartzen du, bermatzeko berariaz ezagutzen dela zein den zerbitzuen errealitatea, zein diren erabilzaila eta profesionalen beharrezkoak eta zer zailtasun dagoen kudeaketaren eta arretaren kalitatea bermatzeko...: "esparru honetan eta modu orokorrean aurreikusiko dira kudeaketa publikoaren eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketaren nagusitasuna, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen katalogoko zerbitzu eta prestazioak ematerakoan."

Koordinazio- eta lankidetzaren printzipioari dagokionez (h letra), honako hau dio: "Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak koordinazio- eta lankidetzaren betebeharraren arabera jardungo dira elkarren artean, bai eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimen pribatuarekin ere. Elkarlanean arituko dira, orobat, gainerako ekimen pribatuarekin, lege honetako V. tituluan ezarritako eran".

Ilde beretik, honela dio 60.3 artikulua: "Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen katalogoko prestazio eta zerbitzuen hornikuntza ziurtatzeko asmoz".

Eta, aurreikuspen-multzo hori zehazte aldera, 35.3 artikuluan ezartzen da EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan zenbait orientabide finkatu beharra dagoela sektore publikoak eta sektore pribatu itunduak zerbitzuak ematen izan behar duten parte-hartzeari buruz, "hori guztia 5. artikuluan aipatutako gizarte-zerbitzuen sare publikoa taxutze aldera, 7.a) artikuluan ezarritako moduan".

Legean bildutako aurreikuspen horiek koherenteak dira unibertsaltasunaren, elkartasunaren, egokitasunaren eta efizientzia ekonomikoaren printzipioek interes orokorreko gizarte-zerbitzuen eremuan duten garrantziarekin; gainera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen hedapen efektiboa, jasangarritasuna eta kalitatea bermatzeko premiari erantzuten diote, eta bat datoz Batasunaren ikuspegiarekin.

Kontuan hartuta prestazio eta zerbitzu horiek interes orokorreko gizarte-zerbitzuak direla, eta, gainera, haiek emateko garaian, unibertsaltasunaren, elkartasunaren, egokitasunaren eta efizientzia ekonomikoaren printzipioak zaindu behar direla, justifikatuta dago Batasunaren zuzentza askatasuna ematea estatu kide bakoitzari zerbitzu horiek emateko era antolatzeke, kontratu publikorik egin beharrik gabe, betiere publikotasun nahikoa bermatzen bada, eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraituz.

Eta honako hauek ere justifikatuta daude: a) zenbait prestazioren zuzeneko kudeaketa publikoa, eta ekimen pribatuarekiko eta, batik bat, gizarte-ekimenarekiko lankidetzaren; b) modulu ekonomikoak ezartzea, oinarri hartuta zentro bakoitzaren kostuaren zenbatekoa; c) sarbide-betekizunak zehazterakoan, aintzat hartzea Batasunaren ikuspegia eta Europako Borondatezko Esparrua, honako hauek barnean direla: kasuan kasuko eremuan lehendik presentzia izatea eta, zehazki, erakundeek lotura izatea lurraldearekin eta komunitatearekin, kalitatezko arreta emateko baldintza gisa: arreta integrala, etengabea, pertsonalizatua, hurbila, partaidetzakoa, zentralizatu gabea, etab.

Hortaz, itun-araubidea justifikatuta dago, arrazoi hauek tarteko: gizarte-zerbitzuen ezaugarriak; zerbitzu horiek modu unibertsalean eta solidarioan, behar den kalitatearekin eta kostu egokian eman beharra; ekimen pribatuko sare bat eta, batez ere, sare sozial bat erabilgarri izatea, baliabide propioak dituen, eta arreta-eredu bat, lortu nahi diren kalitate-estandarrekin koherentea dena. Araubide hori, betiere, gardentasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraituz bakarrik sustatu behar da, eta, hortaz, hautaketarik egin gabe, hala gertatzen baita botere adjudikatzaileak aurretik ezarritako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztien proposamenak onartzen direnean.

Bestalde, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak, 2. eta 4. artikuluetan, gizarte-ekimeneko eta esku-hartze sozialeko erakunde gisa definitzen ditu hirugarren sektore sozialeko erakundeak, eta, hartara, "irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena", "gizarte-ekimen pribatua" edo "gizarte-ekimena" kontzeptuak zehazten ditu, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bereizi eta definitu gabe erabiltzen baititu. 6/2016 Legearen 7. artikulua elkarrizketa zibila du hizpide, eta aipatutako erakundeei eta haien bitartez esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateei eskubidea aitortzen die politika publikoetan parte hartzeko, politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne; eskubidea aitortzen die, beraz, erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko ere, "betiere lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraikiz, kaltetu gabe, hala ere, erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabaki-gaitasunak".

Testuinguru horretan, III. kapituluaren jorratzen da nolako lankidetzaren eta elkarlana izan behar duten EAEko administrazio publikoek eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialako (EHSS) erakundeek esku-hartze sozialaren esparruko politikak egikaritzeko garaian. Ildo horretatik, 10. artikulua dio sektore publikoarekiko lankidetzaren bitartez hezurmamituko dela erakunde horiek eta sareek politika sozialetan izan beharreko parte-hartzea politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne. Elkarlana gauzatzen den arreta-arloaren edo -mailaren ardura duen administrazio publikoak zehaztuko du elkarlanaren irismena.

12. artikulua ardatz du erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko (diseinatzeko, egiteko, ebaluatzeko eta hobetzeko) lankidetzaren. Artikulu hori, elkarrizketa zibilaren printzipioarekiko koherentziaz, harago doa Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen aurreikusitakoa baino, eta honako hau ezartzen du: a) EAEko administrazio publikoek antolatuko dute Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen parte-hartzea erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan; batik bat, "adierazitako erakundeak zerbitzu horiek jada ematen ari badira, erantzukizun publikoko zerbitzu gisa finkatu baino lehenagotik ere, hain zuzen ere errekonozitze aldera erakundeon esperientzia eta erakundeek orain arte egin duten eta orain egiten ari diren ekarpenaren balioa bai pertsona hartzaileentzat eta erantzukizun publikoko sistementzat, bai eta sistema horiek antolatzeko eta finkatzeko orduan ere"; b) gainera, jarduera bereziak gauzatzen dituzten erakundeen kasuan ere bermatuko dute parte-hartze hori.

Alde horretatik, hirugarren apartatuan zehazten da zein diren jarduera bereziak egiten dituzten erakundeak; era berean, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 69. artikuluan, jarduera bereziak jasotzen ditu hitzarmenak formalizatzeko justifikazioen artean, era honetan: "Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek hitzarmenak ezar ditzakete irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan bildutako prestazio eta zerbitzuak emateko; baldin eta, erakundearen jarduera edo dagokion prestazioa edo zerbitzua berezia, urgentziazkoa, berritzailea edo esperimentala izaki, itun-araubidea aplikatzea komeni ez bada, araubide hori nola arautzen den aintzat hartuta, eta, betiere, behar bezala arazoitzen bada".

Azkenik, 15. artikulua dioenez, esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizun publikoko zerbitzuak emateari dagokionez Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeekiko lankidetzaren formalizatzeko, EAEko administrazio publikoek Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko Legearen (15. artikuluko 1. apartatua) aurreikusitako itun-araubide berezia baliatuko dute, edo, bestela, hitzarmenak (2. apartatua), edo, jarduera bereziak gauzatzen dituzten erakundeen kasuan, hitzarmenak (3. apartatua).

Hori guztia ez da joango erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabakitzeko-ahalmenen kaltetan. Beraz, organo horiek askatasuna izango dute erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntza nahi duten moduan antolatzeko, araudi espezifikoen aurreikuspenekin bat etorritik, eta, hortaz, kontratuak baliatu ahal izango dituzte, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 71.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan ezartzen denez, erabiltzaileek eskubidea dute eragiten dieten erabakietan parte hartzeko eta beren kasuari egokien doakion zerbitzu-mota eta -modalitatea libreki aukeratzeko, beren aukeren arabera, eta izendatutako erreferentziako profesionalaren jarraibideei eta preskripzio teknikoei jarraituz. Era berean, arrazoizkoa da, errotze-printzipioaren arabera, pertsonak erabiltzaile diren zentroan geratu ahal izatea, hala nahi badute, baldin eta eskubidea aitortu bazaie horrelako zerbitzu bat jasotzeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zorroan bildutako zerbitzuen artean, balorazio-prozesu baten ondorioz. Hala izango da, erabiltzaile diren zentro zehatzaren esleipena aldatzen ez den bitartean, 9. artikuluan ezarritakoaren esparruan.

Errotze-printzipio hori jasota dago, halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean; izan ere, lege horren 167. artikulua lizitazio-prozedura negoziazio bidez gauzatzen den kasuei buruzkoa da, eta, haren f) letran, honako kontratu mota hau jasotzen da: gizarte-zerbitzu guztiz pertsonalak, ezaugarri nagusien artean dutenak pertsona gizarte-arretako ingurunean errotuta egotea, eta, betiere, kontratuaren helburua dagoeneko zerbitzua jasotzen duten pertsoneri arreta ematen jarraitzea bada.

Elkarrizketa zibilaren printzipioak eta, neurri apalagoan, erabiltzaileen errotze-printzipioak, definitu den moduan, eskumena ematen diete Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeei erantzukizun publikoko zerbitzuak eman ditzaten esku-hartze sozialaren eremuan, araudiak ezarritakoaren esparruan. Esparru horretan, hain zuzen ere, jarduera bereziak gauzatzen dituzten erakundeei hitzartuak izango direla bermatzen zaie, eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeei itunduak izateko eskumena ematen zaie, betiere kasuan kasuko zerbitzuaren ardura duen administrazio publikoaren erabakiaren, plangintzaren eta aurrekontu-aurreikuspenen arabera, eta araudi orokor eta espezifikoa eta, batik bat, gizarte-zerbitzuei buruzko eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko legeetan eta dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Azkenik, Konstituzioan Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean eskumenak banatzeko ezarritakoarekin bat etorritik, autonomia-erkidegoek eskumena izango dute era horretako zerbitzuak antolatzeko formula zehatza aukeratzeko, beren gain hartu baitute zerbitzu horien kudeaketa (148. artikulua), nahiz eta Estatuak eskumen eskusiboa izan administrazio-kontratuen eta -emakiden oinarriak finkatzeko (149.1.18 artikulua), hau da, nahiz eta lege-erreserba egon kontratu publikoak eta, haien artean, pertsonentzako zerbitzu-kontratuak arautzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, beraz, erkidegoaren eskumenekoak dira gizarte-zerbitzuak emateko itun-araubide berezia eta hitzarmenak aukeratzeko eta konfiguratzeko, kontratu publikoek bestelako tresna gisa, hala ezarrita baitago Euskal Herriko Autonomia Estatuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.12 eta 10.39 artikuluetan, eta, horren barruan, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 40.1.a) eta 31.2 artikuluei eta zortzigarren xedapen gehigarriari jarraituz. Ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ere honela dio berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian: "Lege honetan ezarritakoa ez da oztopoa izango autonomia-erkidegoek, esleituta dauzkaten eskumenak baliatuz, legeak eman ditzaten; izan ere, kontratuez bestekoak diren tresnak artikulatu ahalko dituzte arlo sozialeko beharrezkoak betetzera bideratutako zerbitzu publikoak emateko".

Eskumen-esparru horretan kokatu behar da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean bildutako agindua; izan ere, lege horren zortzigarren xedapen gehigarriak Eusko Jaurlaritzari agintzen dio dekretu hau presta eta onar dezala; nolahi ere, hori ez da eragozpen izango, esparru orokor honi zor zaion errespetuz, administrazio bakoitzak bere ekintza itundua berariaz arautu dezan. Agindu hori betez, eta lege horren 61.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, dekretu honen xedea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari integratzen diren zentro pribatu itunduen araubide juridikoa eta jarduteko baldintzak ezartzea; gainera, itun-araubidearen oinarriko alderdiak arautuko ditu, eta, bereziki: sarbide-betekizunak, itunaren gehieneko iraupena, ituna azkentzeko kausak eta aldean betebeharrak.

Hala, Dekretuak, I. kapituluak, zehazten du zein diren bere helburua, aplikazio-eremua eta eremu subjektiboa, eta, gainera, honako hauek ezartzen ditu: zenbait definizio garrantzitsu, ekintza itunduaren eta ituntze-prozeduraren printzipio informatzaileak eta itun sozialaren araubidearen xedea.

II. kapituluak arautzen du zer betekizun konplitu behar diren itun sozialaren araubidera sartzeko, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitakoa garatuz eta aplikatuz, eta, kontuan hartuz Batasunaren ikuspegia eta gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparrua. Horrez gain, zenbait xedapen ezartzen ditu, itunen plangintzari eta finantzaketari buruz.

III. kapituluak ituntze-prozeduraren oinarriko zenbait alderdi definitzen ditu, hasieratik bukaerara, bai eta itunak nola harpidetu eta formalizatu ere.

IV. kapituluak ekintza itundurako akordioaren araubide juridikoa ezartzen du, eta, zehazki, aldean betebeharrak. V. kapituluak itunen iraupena, berritzea, aldaketa eta azkentzea arautzen ditu, bai eta erabiltzaileei arreta eskaintzen jarraitzeko zenbait alderdi espezifiko ere, errotze-printzipioarekin zerikusia dutenak.

VI. kapituluak zehazten da itun-araubidearen zer ezaugarri eta betekizun aplikatuko zaizkien hitzarmenei, eta, besteak beste, aipatzen du EAEko administrazio publikoek zer kasutan formalizatu ditzaketen hitzarmenak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin katalogoko zerbitzuak emateko. Argitzen du, gainera, noiz diren bereziak erakundearen jarduerak, eta, zerbitzuen kasuan, noiz diren bereziak, berritzaileak eta esperimental edo urgentziazkoak. Kasu bakoitzean zehazten du zenbat irauten duen hitzarmenak.

Azkenik, xedapen iragankorretan, honako hauek jasotzen dira: hitzarmen eta kontratuen indarraldia, katalogoko zerbitzuak ematen diharduten erakundeekin itunak egitea eta betekizun material, funtzional eta pertsonalekoak arautu gabe dituzten zerbitzuetarako araubide iragankorra. Xedapen gehigarriak ezartzen du administrazio publikoek ahalmena dutela ekintza itunduaren araubidea garatzeko, dekretu honetan ezarritako esparru orokorra errespetatuz. Eta, azkenik, azken xedapenek Dekretuaren araubide osagarria eta indarrean sartzeari jasotzen dute.

Horrenbestez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Gobernu Kontseiluak [...]ko [...]aren [...] (e)(a)n egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA. XEDEAK, DEFINIZIOAK, APLIKAZIO-EREMUA ETA PRINTZIBIOAK

1. artikulua. Xedea

1. Dekretu honen xedea da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 61.1 artikuluan aurreikusitako itun-araubide arautzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara biltzen diren zentro pribatu itunduen jarduteko baldintzak finkatzea, itun-araubidearen oinarriko alderdiak arautzea, eta, zehazki, honako hauek: itunera sartzeko betekizunak, itunaren gehieneko iraupena, ituna azkentzeko kausak eta aldean betebeharrak.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

1.- Dekretu honen mendeko itun sozialak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eta ekimen pribatuko erakundeen artean egindakoak, zerbitzu eta modalitate hauek emateko: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluko 1.7tik 1.9ra eta 2.2tik 2.5era bitarteko epigrafeetan eta 2.7.3.2 epigrafean bildutako zerbitzu bat edo gehiago eta, hala badagokio, han jasotako modalitateak.

2.- Itun sozialaren helburua izango da zentro bakoitzak eskaintzen dituen plazetatik kopuru jakin bat erreserbatu eta okupatzea, edo zentroaren kudeaketa integrala egitea, betiere prestazio eta zerbitzuak emateko haietarako eskubide aitortua duten pertsoneri, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 61.1 eta 62.1 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

3.- Dekretu honen ondorioetarako, kudeaketa integraltzat hartuko da zentro batek eskaintzen dituen plaza guztiak erreserbatu eta okupatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zenbait zerbitzu edo prestazio emateko zentro horretan bertan.

4.- Dekretu honen ondorioetarako, zerbitzuak jasotzeko eskubide aitortua duten pertsonak izango dira katalogoko zerbitzu mota bat edo hainbat esleitu zaizkienak balorazio-prozesu bat igaro ondoren, edo, ezohiko egoeretan, –hala nola urgentziazko sarbidea– halakorik igaro gabe.

3. artikulua. Eremu subjektiboa

1.- Ekimen pribatuko erakundeen eta euskal sektore publikoko organo eskudunen artean formalizatutako itun sozialei aplikatuko zaie dekretu hau, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 40, 41 eta 42. artikuluetan zerbitzu horiek emateko aurreikusitako eskumen-banaketaarekin bat etorriz, eta arlo horretako eskumenen araubide autonomikoari eta foru- eta toki-araubideari buruzko gainerako arauarekin bat etorriz. Horretarako, ekimen pribatuko erakundeek aurreko artikulua 1. apartatuko zerbitzu bat edo hainbat eman behar dituzte, eta beren titulartasuneko zentroak izan.

4. artikulua. Definizioak

1.- Artikulu honetan bildutako definizioak dekretu honetarako ematen dira, eta, hortaz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuen esparruan.

2.- Itun soziala: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko zerbitzuak kudeatzeko formula bat da, euskal sektore publikoak erabil dezakeena, hain zuzen ere antolatzeko nola hartuko duten parte sisteman zerbitzu horiek ematen dituzten eta, horretarako, beren titulartasuneko zentroak dituzten ekimen pribatuko erakundeek Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 64.3 artikuluan eta dekretu honetan ezarritako baldintzetan.

3.- Zerbitzu itundua: katalogoko zerbitzua, ekimen pribatuko erakunde batek emana bere titulartasuneko zentro batean, administrazio eskudunarekin kasuan kasuko itun soziala formalizatu ondoren.

4.- Zentroa: higiezin bat edo higiezin baten zati bat, unitate organiko eta funtzional gisa eratu, kokapen autonomoa eta identifikagarria duena; han, gizarte-zerbitzuetako prestazioak eskaintzen edo antolatzen dira. Katalogoko eta zorroko zenbait zerbitzu zentrotzat hartzen dira.

5.- Zentro itundua: itundutako erakunde pribatuaren titulartasuneko zentroa; haren instalazioetan ematen da itundutako zerbitzua.

6.- Plaza itundua: eman beharreko zerbitzuaren ardura duen administrazioak itundutako zentro bateko plaza; han, zenbait prestazio tekniko edo teknologiko ematen zaizkio zerbitzu horretako erabiltzaile bati.

7.- Plaza okupatua: horretarako eskubide aitortua duen pertsona bati esleitutako plaza; han egongo da zentroan sartzen den unetik baja ematen zaion egunera arte.

8.- Plaza erresebatua: plaza itundu bat, okupatu gabe dagoena erakunde esleitzailleak zehaztutako arrazoiak eta baldintzak direla eta.

5. artikulua. Itunaren eta ituntze-prozeduraren printzipio informatzaileak

1.- Honako printzipio hauetara egokituko dute administrazio publikoek ekintza itundua:

a) Erantzukizun publikoa: izan ere, zerbitzuen ardura duen administrazioaren eskumen izango dira plaza eta zerbitzu itunduen finantzaketa, sarbidea, jarraipena eta kontrola.

b) Berdintasuna eta ekitatea: pertsona orori bermatuko zaio haren premien arabera; hartara, zerbitzuak jasotzeko eskubidearen titular diren pertsonak jarraituko dute beren eskubidea baliatzen, haren irismena eta edukia aldatu gabe, zeinahi dela ere hornitutako zerbitzuak kudeatzeko era.

c) Aurrekontu-oreka, -egonkortasuna eta -efizientzia, zerbitzuak sendotzeko eta hedatzeko; izan ere, zerbitzu horiek jasotzea herritarren eskubide subjektibo bat da.

d) Arreta pertsonalizatua, etengabea, integrala, hurbila eta kalitatezkoa, Batasunaren ereduarekin eta ardura duen administrazioak ezarritako kalitate-estandarrekin bat datorrena, bai eta beste zenbait erreferentzian ezarritakoekin bat datorrena ere, hala nola Europar Batasuneko Gizarte Babeseko Batzordearen gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruan edo haren ordezkotresnan.

e) Zerbitzu bat jasotzeko eskubidea aitortua duten erabiltzaileen errotzea, dekretu honetan zehaztutako egoeretan, eta erabiltzaileek parte hartzea zerbitzuaren hautaketan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluko j eta k letretan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

2. Administrazioek ziurtatuko dute, halaber, ituntze-prozedurak honako printzipio hauek betetzen dituela:

a) Erakunde eskatzaileentzako tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza; sarbide-betekizunak konplizten dituzten eskabide guztien aldeko ebazpena emango da, dekretu honetan aurreikusitako egoeretan.

b) Publikotasuna eta gardentasuna: aldizkari ofizialetan eta dagokien atarietan iragarriko dira deialdiak eta itunen funtsezko elementuak.

6. artikulua. Xedeak

1. Xede hauek ditu itun sozialaren araubideak:

a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzen laguntzea, erantzukizun publikoko sare gisa; titulartasun publikoko eta pribatu itunduko zerbitzu eta ekipamenduek osatuta egongo da sarea, baina, oro har, kudeaketa publikoa izango da nagusi; gizarte-ekimenarekin lankidetzan jardungo da, unibertsaltasunaren, elkartasunaren, egokitasunaren eta aurrekontu-efizientziaren printzipioei jarraituz, betiere azken xedea izanik Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 5. eta 7.a) artikuluetan ezarritako gizarte-zerbitzuen sare publikoa antolatzea.

b) Gizarte-ekimenaren gaitasun eta baliabideak aprobetxatzea, egokia bada, honako printzipio hauek aplikatuz: gizarte-ekimenaren sustapena eta harekiko koordinazioa eta lankidetzak, eta baliabideen aprobetxamendu integral, arrazoizko eta efizientea.

c) Erabiltzaileen errotze-printzipioa, eragiten dieten erabakietan parte hartzeko eskubidea eta zerbitzu edo zerbitzu mota egokiena askatasunez hautatzeko eskubidea betearaztea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan ezarritako baldintzetan.

d) Elkarriketa zibilaren printzipioari jarraikiz, eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 7.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskubide hau betearaztea: hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta, haien bitartez, pertsona, familia, kolektibo eta komunitateek eragiten dieten politika publikoetan, edozein fasetan, egikaritze-fasea barne, parte hartzeko duten eskubidea, betiere lege horretan eta sistema publiko bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraikiz, eta alde batera utzi gabe erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabakitze-ahalmenak.

e) Ekimen pribatuarekiko lankidetzaren antolatzea, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak emateko, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7. artikuluko a), h), e) eta i) letretan eta 60.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, bai eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 12. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz ere.

II. KAPITULUA ITUN-ARAUBIDERA SARTZEKO BETEKIZUNAK, ETA HAREN PLANGINTZA ETA FINANTZAKETA

7. artikulua. Itun sozialaren araubidera sartzeko betekizunak eta ituntzeko ahalmena

1.- Ekimen pribatuko erakundeek ituntzeko ahalmena izango dute, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, haien estatutuetan gizarte-zerbitzuen prestazioa jasota badago eta erregistroan inskribatuta egoteko eta baimena eta homologazioa izateko betekizunak betetzen badituzte Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 59. artikuluan aurreikusitako eta araudian garatutako moduan.

2.- Itun-araubidera sartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte erakunde eskatzaileek, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 64. artikuluekin bat etorriz:

a) Etengabe arreta eskaini izana itundu nahi den zentroan hartzaile direnen antzeko beharrianak dituzten pertsona, familia eta/edo taldeei.

b) Egiaztatu behar dute lehendik presentzia dutela zerbitzua eman behar duten eremuan; zehazki, lurraldearekin lotutako ibilbide bat izan behar dute, lanean jardunez komunitatearekin batera (sistema publikoak, erakundeak, pertsonak, baliabideak, ekimenak...), zentroak eskaintzen duen arreta hobetzeko moduan.

c) Egiaztatu behar dute, halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan finkatutako baldintzak betetzen direla bermatzeko nahikoa bitarteko eta baliabide daukatela .

d) Oro har edo berariaz aplikatzekoa zaien araudia bete behar dute, kontuan hartuta zein den erakundearen izaera juridikoa eta zer zerbitzu mota itundu den.

e) Zentroaren titulartasuna egiaztatu beharko dute, edo erabilera- eta gozamen-eskubide erreala izan zentroaren gainean; eskubide hori, betiere, ezin da izan itunaren indarraldia baino laburragoa. Egiaztatu beharko dute, hala badagokio, jabearen baimena daukatela, zentroa itunaren xedera bideratzeko.

f) Egiaztatu beharko dute beren antolamenduan, funtzionamenduan eta esku-hartzean berdintasun-printzipioa erabat errespetatuz jarduten dutela genero-ikuspegia egiazki integratuz eta helburu horretara bideratutako berdintasun-neurri edo -planak egituratuz, bereziki familia eta lana uztartzeko neurriak.

3.- Itunaren erakunde esleitzailleak, aurreko apartatuko betekizunez gainera, sarbide-betekizun hauetako biren edo gehiagoren konbinazioa ezarriko du deialdietan:

a) Beste zerbitzu eta/edo jarduera batzuk eskaini behar zaizkie pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileei, zentro itunduak berez eskaini ohi dituzenez gainera (arretaren integritatea).

b) Pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileei arreta eskaintzea, bizitzaren edo gizarteratze-edo txertatze-prozesuaren etapetan (arretaren jarraitutasun).

c) Arreta pertsonalizatua eskaintzea pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileei, laguntza egokituz kasu bakoitzari, erakundeak eskaintzen dituen zerbitzu eta jarduerak konbinatuz, eta hirugarrenekin koordinatuz eta lankidetzan jardunez (arretaren pertsonalizazioa).

d) Sustapen-lana egitea, pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileek parte har dezaten erakundeetan, zentroan eta jardueretan, bai eta esku hartzeko prozesu indibidualean eta familiarrean ere (parte-hartzea).

e) Beste zenbait betekizun, itundu beharreko zerbitzuaren ezaugarriekin bat datozenak, eta koherente direnak Batasunaren ikuspegiarekin eta gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin.

4.- Aurreko apartatuko betekizun guztiek lotuta behar dute zentro itunduaren pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileekin, eta lagundu behar dute erabiltzaile horiek modu integralean nahiz zentro itunduan bertan jasotzen duten arreta hobetzen.

5.- Itunaren erakunde esleitzailleak, sarbide-betekizun gehigarriak zehazteko garaian, ahal denik eta koherenteen jokatu du Batasunaren ikuspegiarekin eta gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin. Hala, ikuspegi eta esparru horiekin bat datozen betekizunak finkatuko ditu deialdietan, posible baldin bada, aintzat hartuz ituntzeko premien eta dagoen eskaintzaren ezaugarrien arteko erlazioa.

6.- Desgaitasunen bat duten pertsonen edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudenei bideratutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako katalogoko zentroein dagokienez, itunaren erakunde esleitzailleek plangintzan uste badute litekeena dela eremu batean eta zentro mota batean edo gehiagotan erakunde itunduak egotea, betekizun guztiak betetzen dituztenak eta, denak batera, eskatutako plaza guztiak kudeatzeko gaitasuna dutenak, bada, deialdian, sarbide-betekizun guztiak jasoko dira.

7.- Egiatztatutako baliabide material, tekniko eta profesionalen egokiak eta behar bestekoak izan behar dute, aplikatzekoa den araudian ezarritako betekizun material, funtzional eta pertsonalekoak betetzeko.

8.- Itunaren administrazio esleitzailleak zehaztuko du zenbat denbora iraun behar duen etengabeko arretak, kontuan hartuz, besteak beste, nolakoa den zerbitzua eta zenbateraino dagoen finkatua eremuan. Normalean, 4 urtetik gora iraungo du.

9.- Deialdietan zehaztuko da nola egiatztatu behar den betekizunak betetzen direla; betiere, ulertuko da pertsona juridiko eskatzaileak bete behar dituela betekizunak; nolana ere, pertsona juridikoa lehendik zerbitzuak ematen diharduten erakunde-multzoak badira, haiexek bete beharko dituzte betekizunok.

8. artikulua. Itun-araubidearen plangintza eta finantzaketa

1.- Itunaren organo esleitzailleak, planifikatzeko eta antolatzeko dituen eskumenak baliatuz diharduela, itundu nahi dituen zerbitzuen eta, ahal badagokio, plazen aurreikuspena egingo du.

2.- Planifikatutako itunak egiteko, kreditu egokia eta nahikoa kontsignatuko du itunaren erakunde esleitzailleak urteko aurrekontuetan.

3.- Itunaren organo esleitzailleak kalkulatuko ditu itundu beharreko zerbitzuen aurrekontuak, eta, horretarako, kontuan hartuko du zer kostu duen zerbitzua emateak ituntze-espeditentean eskatzen diren kalitate-baldintzekin.

III. KAPITULUA. ITUNTZE-PROZEDURA

9. artikulua. Prozedura abiaraztea, deialdia egitea eta eskaerak aurkeztea

1.- Itunaren organo esleitzailleak ofizios abiaraziko du ekintza itunduaren prozedura; horretarako, deialdi bakoitzeko, hasiera-espeditente bat izapidetuko du katalogoko zerbitzu mota baterako edo hainbatetarako, eta han zehaztuko du zergatik den beharrezkoa ekintza itunduaz baliatzea.

2.- Deialdiek publikotasun- eta gardentasun-printzipioak bete beharko dituzte, eta administrazio deitzailearen lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, bai eta gardentasun-araudia betetzeko ezarriak dituen hedabideetan ere.

3.- Itunaren organo esleitzailleak deialdi bakoitzaren oinarriak onartuko ditu, eta, han, alderdi hauek zehaztuko ditu, besteak beste:

a) Itunaren xedea eta, bereziki, administrazioak zenbat plaza itundu nahi duen eremu jakin batean, plaza erreserbatuak bereizita, hala badagokio.

b) Okupatu gabeko plazak ituntzeko aplikatu beharreko sarbide-betekizunak eta diskriminazio positiboko neurriak, hala behar izanez gero.

c) Erakundeek aurkeztu beharreko dokumentazioa, epea eta era, bai eta deialdiko gainerako izapideak egiteko aurreikusitako beste edozein epe ere. Zerbitzuen hartzaile adingabeak direnean, edo adingabeek askotan parte har dezaketen zerbitzuen kasuan, erantzukizunpeko adierazpena bat aurkeztu beharko da, non aditzera ematen den itundutako prestazioen jarduerak egin behar dituzten langileek bete egiten dutela 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan aurreikusitako betekizuna.

d) Eskaerak baloratzeko eta ebazteko prozedura eta organo eskudunak, balorazio-batzordearen osaera, bai eta balorazio-irizpideak eta ebazteko epea ere.

e) Zerbitzua emateko baldintzak eta, zehazki, hura emateko behar diren gutxieneko baliabide material eta profesionalak, eta bete beharreko kalitate-estandar eta -parametroak.

f) Erakundeak aurkeztu behar duen proiektu teknikoaren betekizunak.

g) Baldintza administratibo eta ekonomikoak, barnean direla modulu ekonomikoen zenbatekoak, eta ituna gauzatzen izandako kostuak ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak. Gainera, hala badagokio, 16. artikuluan aurreikusitako klausula.

h) Exijitu beharreko betebeharrak.

i) Akordioaren indarraldia.

j) Ekintza itundua aldatzeko edo azkentzeko kausak.

k) Ebaluazio-era eta -aldizkakotasuna.

l) Beste edozein zehaztapen, ekintza itundua behar bezala burutzeko beharrezkoa dena.

4.- Aurreikusitako gehieneko gastua oinarriak onartu baino lehen edo haiekin batera onartuko da.

10. artikulua. Prozedura izapidetzea

1.- Itunaren organo esleitzailleak izendatuko du administrazioaren zer unitatek izapidetuko duen prozedura.

2.- Erakunde interesdunek garaiz eta forman aurkeztu beharko dituzte eskaerak eta dokumentazioa, deialdiaren oinarrietan ezarritakoari jarraituz. Zentro bakoitzeko, eskaera bat aurkeztuko da.

3.- Balorazio-batzorde batek baloratuko ditu erakundeen eskaerak, eta itunaren erakunde esleitzailleko teknikariek parte hartuko dute batzorde horretan. Halaber, ekintza itunduaren arloko ezagutza duten beste pertsona batzuk ere izenda daitezke batzordekide, itunaren organo esleitzailleak aurretik horretarako ebazpen arrazoitua ematen badu ezagutza espezifikoak izan beharra oinarri hartuta.

4.- Balorazio-batzordeak erabakiko du erakunde eskatzaileek jarduteko eta sarbide-betekizunak betetzeko gaitasuna duten, eta beharrezko ikusten dituen zuzenketak egiteko eskatuko die eskatzaileei. Errekerimendu horiei erantzuten ez badiete, eskaeran atzera egin dutela joko da.

5.- Behin eskaerak zuzenduta, hala badagokio, eta jarduteko eta sarbide-betekizunak betetzeko gaitasuna egiaztatuta, betekizunok betetzen dituzten eskaeren aldeko ebazpena emango da, betiere aurkeztutako proiektuaren eta aurrekontuaren balorazioa bat badator arretaren kalitatearekin eta/edo erakundeak aurreikusitako kostuarekin, betiere aintzat hartuta itunaren erakunde esleitzailleak deialdian finkatutako kalitate-parametroak eta modulu ekonomikoen zenbatekoak.

6.- Batzordeak, aldeko ebazpena merezi duten eskaerak identifikatu ondoren, plazak esleituko dizkie zentroei, eta, horretarako, irizpide hauek hartuko ditu aintzat, itunaren erakunde esleitzailleak finka ditzaketen beste batzuekin batera:

a) Lehenbizi, plazak esleitzeko garaian, zentroan lehendik plaza okupatzen zuten eta zerbitzua jasotzeko eskubide aitortua duten pertsona guztiei bermatuko zaie plaza, errotze-printzipioari jarraituz, non eta kasuan kasuko zentroan egindako esleipena aldatu ez den, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

b) Halaber, zerbitzuak jasotzeko eskubide aitortua duten pertsonak eskabidea aurkeztu den egunaren aurreko 30 egunetan okupatu izan dituzten plazak ere esleituko dira, baldin eta ituntzeko eskaera formalizatzeko unean okupatu gabe badaude heriotzagatik edo zentroarekin zerikusirik ez duten beste arrazoi batzuegatik.

c) Hala badagokio, gainerako plazak, hau da, deialdian aurreikusitako plazen guztizkotik geratzen direnak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 65. artikuluan ezarritako diskriminazio positiboko irizpideei jarraituz esleituko dira, hirugarren sektore sozialeko erakundeetatik hasita, beraz, eta banaketan nolabaiteko proportzionaltasunari eutsiz.

7.- Itunaren erakunde esleitzailleak aintzat hartuko ditu aldeko ebazpena izan duten baina, lehenago azaldutako eragiketaren ondorioz, plazarik esleitu ez zaien eskaerak, baldin eta deialdi berean formalizatutako itunak azkentzen badira edo uko egiten bazaie, itunak indarrean direla, eta betiere, halako plazak betetzeko. Nolanahi ere, aukera horrek ez die inolako eskubiderik sorrarazten erakunde eskatzaileei, dagokion kontratu-programa izenpetzen ez den bitartean.

8.- Behar diren argibideak eta informazio eta agiri gehigarriak eskatu ahal izango zaizkie erakundeetara, eta, oro har, beharrezko ikusten diren jarduketak egin ahal izango dira, datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko, haiek hartuko baitira kontuan ebazpen-proposamena egiteko.

11. artikulua. Prozedura amaitzea

1. Balorazio-batzordeak ebazpen-proposamena egin, eta organo eskudunari helaraziko dio, ebazpena eman eta jakinaraz dezan sei hilabeteko epean, gehienez ere, prozedura hasten denetik hasita.

2.- Ebazpena dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da, bai eta administrazio bakoitzak gardentasun-printzipioa betetzeko dituen hedabideetan ere.

12. artikulua. Harpidetzea eta formalizatzea

1.- Itun sozialak programa-kontratuen bidez formalizatuko dira, ebazpenean adierazitako epean, eta une horretatik aurrera sortuko dira aldean betebeharrak eta eskubideak. Erakundeak itunari uko egin diola ulertuko da, baldin eta epe horretan ituna harpidetzen ez bada hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

2.- Programa-kontratuetan, honako zehaztapen eta alderdi hauek jasoko dira, funtsezkotzat jotzen baitira eta barnean hartzen baitituzte Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoak:

a) Itunaren xedea –hau da, plazak erreserbatu eta okupatzea edo zentro itunduaren kudeaketa integrala egiten–, jarduera-bolumen osoaren estimazioa, zenbat zerbitzu eta nolakoak emango diren zehaztuta, bai eta itundutako plaza-kopurua ere, zenbat diren erreserbatuak adierazita.

b) Iraupena, azkentzeko kausak, eta ituna aldatzeko eta berritzeko prozedura.

c) Administrazioak zentro itundua mantentzeko kontsignatutako zenbateko osoa, kasuan kasuko modulu ekonomikoen arabera, eta, hala badagokio, 16. artikuluan aurreikusitako klausularen arabera.

d) Ordainketak egiteko eta gastuak justifikatzeko aldizkakotasuna eta prozedura.

e) Zerbitzuaren ardura duen administrazioak itunaren jarraipena, kontrola eta auditoretza egiteko prozedura eta mekanismoak, bai eta erakundeak eta administrazioak ebaluazioa batera egitekoak ere.

f) Aldeek beren gain hartzen dituzten betebeharrak, eta, bereziki, gizarte-zerbitzuen, berdintasunaren, gardentasunaren eta datu-babesaren arloko araudiak ezartzen dituenak, aplikatzekoak diren gainerako arauekin batera, bai eta zentroaren dokumentazioan eta publizitatean itundua dela adierazteko betebeharra ere.

g) Zerbitzuaren ardura duen administrazioak aurreikusitako betekizun material, funtzional eta pertsonalekoak, pertsonal-ratioak zehaztuta.

h) Ituna berritzeko prozedura, indarraldia bukatzen denean.

i) Hala badagokio, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren doakoak ez diren berezko prestazioen prezio publikoak edo tasak, bai eta prestazio osagarrienak ere.

3.- Programa-kontratuan jasotako alderdi orok itunaren xedearekin lotuta egon behar du, eta harekin proportzionala izan.

IV. KAPITULUA. EKINTZA ITUNDURAKO AKORDIOEN ARAUBIDE JURIDIKOA

13. artikulua. Erakunde onuradunaren betebeharrak

1.- Erakunde itunduek betebeharrak hauek izango dituzte, alde batera utzi gabe zerbitzuaren ardura

duen administrazioak ezar ditzakeen beste batzuk:

a) Finantzaketa publiko osoa zerbitzu itunduetara bideratzea, zerbitzu horiek ematek inolako etekinik atera gabe.

b) Zerbitzua ematea haren ardura duen administrazioak hartara bideratutako pertsoneri, itundutako gaitasunaren arabera, kontuan hartuz zorroan, zerbitzu bakoitza arautzen duen araudian eta programa-kontratuan aurreikusitakoa, eta etengabe bermatuz araudi autonomikoak zehazten dituen betekizun material, funtzional eta pertsonalekoak, edo, goragokoak badira, itunaren administrazio esleitzzaileak zehazten dituenak, bai eta sarbide-betekizunak eta aplikatu beharreko diskriminazio positiboko neurriak ere.

c) Aldaketen berri ematea, zerbitzuetan egiten direnean edo aplikatzea aurreikusten denean, bai eta honako alderdi hauetako edozeini eragiten diotenean ere: ituntzeko ahalmenari; zentroaren titulartasunari; sarbide-betekizunak edo diskriminazio positiboko neurriak betetzeari; zerbitzuaren ohiko plantillaren kopuruari edo kualifikazioari, eta zerbitzua emateko esanguratsuak diren alderdiei eragin diezaieketen beste edozein elementuri, esaterako: eskaintako prestazioak, arta daitekeen pertsona-kopurua eta -profila, edo arretaren intentsitatea.

d) Profesionalen eta erabiltzaileen eskubideak bermatzea eta betebeharrak konplitzen direla zaintzea, dagokien erantzukizun-eremuan aplikatzekoak diren neurrian, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulutik 12.era bitartean aurreikusitakoari jarraituz. Bereziki, eta erabiltzaileen konfidentzialtasun-eskubideari dagokionez, lege horren 9. b) artikuluan ulertzen den moduan, erakunde itunduak arduratuko dira datu-tratamenduaz, eta datu-babesari buruzko araudian aurreikusitako eta erabiltzaile-izaeratik eratorritako neurri guztiak hartuko dituzte.

e) Itunaren administrazio esleitzzaileari jakinaraztea erabiltzaileek aurkeztutako kexa edo erreklamazioen edukia eta erakundeak emandako erantzunak.

f) Itunaren administrazio esleitzzaileari laguntzea kontrol-, ikuskatze-, fiskalizatze- eta auditatze-lanak egiten, eta, zehazki, hari ematea informazio ekonomikoa, fiskala, laborala, teknikoa, asistentziala eta beste edozein motatakoa, baldin eta itunaren exekuzioa baloratzeko eskatzen badu. Informazioa ematean, datuen babesari buruzko legedia eta aplikatzekoak diren gainerako arauak bete beharko dira.

g) Erabiltzaileei jakinaraztea zer tarifa edo prezio publiko aplikatzen zaizkien Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren doakoak ez diren berezko prestazioei eta prestazio osagarriei, eta tarifa eta prezio horiek programa-kontratuan aurreikusitakora egokitzea.

h) Aseguru-poliza bat harpidetzea, zerbitzuko langile eta erabiltzaileen ekintzen ondoriozko erantzukizun zibila estaltzeko.

i) Zerbitzuari buruzko dokumentazioan eta publizitatean jasotzea erakunde itunduak direla eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren partaide direla, zerbitzua emateko eskumena duen administrazioak eskuragarri jarritako ereduaren arabera, non eta onuradunak betebeharrak horretatik salbuetsita ez dauden, zerbitzuaren ezaugarriak direla eta.

j) Betebeharrak konplitzea: oinarrietan finkatutakoak eta, erakundearen izaera juridikoagatik edo itundutako zerbitzuaren nolakotasunagatik, oro har edo berariaz aplikatzekoak zaien edozein araudiren ondoriozkoak. Bereziki, betebeharrekoak izango dira berdintasunaren, gardentasunaren eta datu-babesaren arloan aplikatzekoak den araudian ezarritako betebeharrak, bai eta, gai espezifikotik, erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuei eta zerbitzu horiek artatzen dituzten egoerei eragiten dien araudian ezarritakoak ere (desgaitasuna eta mendekotasun-, bazterketa-, babesgabatasun-, edo arrisku-egoerak, barnean direla adingabeen babesaren eta genero-indarkeriaren aurkako babes integrala).

14. artikulua. Itunaren administrazio esleitzaillearen betebeharrak

1.- Honako betebeharrak izango ditu itunaren administrazio esleitzailleak:

a) Erakunde itundua sostengatzeko funts publikoak esleitzea, eta sostengu hori bermatzeko aplikatzeko den zenbatekoa ordaintzea erakunde pribatu itunduari, Merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeetan.

b) Programa-kontratuan jasotako okupazio-konpromisoak betetzea, halakorik bada, edo okupatu gabeko plazen kostua ordaintzea, programa-kontratuan adostutako baldintzetan.

c) Erakundeari modu frogagarrian jakinaraztea edozein gorabehera, baldin eta programa-kontratuari eragiten badiu edo ituna aldatzea edo suntsiaraztea ekar badezake, betiere gorabehera hori aurreikusi ahal bada itunaren administrazio esleitzailleak ezartzen duen aurrerapenarekin.

V. KAPITULUA. IRAUPENA, BERRITZEA, ALDATZEA ETA AZKENTZEA

15. artikulua. Itunen iraupena eta berritzea

1.- Itunek urte anitzeko oinarria izango dute, zerbitzuak ematean egonkortasuna bermatzeko; nolana ere, itunean zehaztu daiteke zenbait alderdi berriak eta, hala badagokio, aldatu daitezkeela, hura indarrean dagoen bitartean.

2.- Itunak berritu daitezke hasierako iraupen-eparean berdina den aldi baterako, baldin eta hala aurreikusita badago, bi aldeek adostasunez, eta finantzatzeko aurrekontu egokia eta nahikoa badago.

3.- Itunaren hasierako iraunaldia ezingo da izan 2 urtetik beherakoa, ez eta 4 urtetik gorakoa ere. Beraz, gehienez, 8 urte iraungo du, salbu eta, zerbitzuaren prestazioa bermatzeko, ituna luzatzen bada akordio berri bat formalizatzeko hertsiki beharrezkoa den denbora tartarako, zeina gehienez 12 hilabetekoa izango baita.

16. artikulua. Itunak aldatzea

1.- Ofizioz edo itunaren erakunde esleipendunak eskatuta alda daitezke itunak, baldin eta nahitaez bete beharreko legezko xedapen baten ondoriozko alderdiak aldatzen ez badira, eta tartean interes publikoko arrazoiak badaude. Itunaren administrazio esleitzailleak du aldaketa onartzeko eskumena, eta, horretarako, itunaren erakunde esleipendunaren berariazko oniritzia beharko du.

2.- Besteak beste, plazak murriztu edo handitzeak zerbitzuetan eragindako aldaketek ituna aldatzea eragin dezakete. Halako kasuetan, ordea, nahikoa izango da baimendutako kreditua handitzea edo murriztea, kasuan kasuko modulu ekonomikoen zenbatekoen arabera, betiere itunaren administrazio esleitzailleak hala xedatzen badu. Horretarako, ez da ituna aldatu beharrik izango, baina aldaketok programa-kontratuan jaso beharko dira.

3.- Hitzartutako hobekuntzak zerbitzuaren hornikuntzan txertatzeko, eta/edo kostuek erakunde itunduaren proposamenean ezarritakoekiko duten desoreka konpentsatzeko, ardura duen administrazioak % 10 gehitu ahal izango du, gehienez, kontsignatutako zenbateko osoa. Zenbateko hori kalkulatzeko, oinarritzat hartuko dira zerbitzurako finkatutako modulu ekonomikoei lotutako zenbatekoak. Aldeek ituna kudeatzeko zikloaren edozein unetan adostu ahal izango dituzte halako gehikuntzak, baldin eta deialdian edo programa-kontratuan horretarako klausula bat txertatu bada, eta egiaztatzen bada desoreka bat dagoela hitzartutako hobekuntzei lotutako kostuan, edo programa-kontratuan aurreikusitako beste inguruabarrei lotutakoan, eta, betiere, desoreka horiek, ez badira kudeaketa desegoki edo efizientziarik gabeko baten ondorioz,

17. artikulua. Itunak azkentzea

1.- Honako hauek dira itunak azkentzeko kausak:

a) Itunaren betetzea.

b) Zentroaren titulartasuna duen pertsona juridikoa azkentzea, salbu eta erakundea eta ondarea beste pertsona juridiko baten titulartasun izatera igarotzen badira, eta pertsona horrek dekretu honetako betekizunak betetzen baditu eta itunari dagozkion betebeharrak guztiak bere gain hartzen baditu.

c) Erakunde itunduak konkurtsoa deklaratzeko, edo ebazpen judizial batek zentroaren edo zerbitzuaren titularraren porrota edo ordainketa-etendura deklaratzeko. Halako egoeretan, eta ituna azkentzea dakarren ebazpen judiziala eman bitartean, administrazioak, kasuan kasuko kontu-hartzaile judizialekin bat etorritik, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, itunetik eratorritako betebeharrak konplizten direla bermatzeko.

d) Aldeek adostasunez hala erabakitzea, edo erakunde itunduak jardura borondatez bertan behera uztea, oro har edo itundutako zerbitzuari dagokionez, horretarako baimena izanda, non eta ez dauden hori egitea eragozten duten interes publikoko arrazoiak. Programa-kontratuan zehaztutako aurrerapenarekin adierazi behar da borondate hori, eta, betiere, ituna bukatu baino sei hilabete lehenago.

e) Aurreikusitako ordainketa-araubidea ez betetzea, betiere erakundeek bete badituzte ordainketak egin aurreko betekizunak, itunean jasota daudenak.

f) Iraupena eta izan daitezkeen berritze eta luzapenak amaitzea.

g) Erakunde itunduak ez betetzea itunerako eskatzen diren betekizunak.

h) Administrazio eskudunak bideratutako erabiltzaileak artatzeari uko egitea; betiere, elkarrizketa bat izan ondoren, administrazioaren eskaera sarbide-betekizunetara eta, hala badagokio, plaza itunduetara egokitzen bada, eta administrazioak eskaerari eusten badio eta erakundeak uko egiten jarraitzen badu.

i) Aurreikusitako betekizun material, funtzional eta pertsonalekoak ez betetzea.

j) Itunaren administrazio esleitzzaileak baldintza teknikoak eta/edo ekonomikoak aldatzea, itunaren erakunde esleipendunaren adostasunik gabe.

k) Zerbitzu batean eskari falta nabarmena eta jarraitua egotea, edo ituna justifikatu zuten premiak desagertzea, hura amaitzeko epea bete baino lehen, baldin eta programa-kontratuan hala aurreikusita badago bi egoera horietako edozein berariaz aipatuta.

l) Erakundeari gizarte-zerbitzuak emateko baimena kentzea, edo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak emateko homologazioa kentzea.

m) Arau-hauste oso astuna egitea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen VII. tituluko II. kapituluaren aurreikusitakoetatik, erakundeari egotz dakioketena, eta hartatik zehapen bat eratoritzea, erakundeari eragozten diona zerbitzu itundua egiten jarraitzea.

n) Zehapen irmo bat izatea, arau-hauste astun bat egiteagatik honako legedia hauen aurka: zergei buruzko legedia, lan-arlokoa, Gizarte Segurantzari buruzkoa eta lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa.

o) 13. artikuluan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea, betiere ez-betetzeko zerbitzua ematea nabarmen eragozten badu edo behin eta berriz egiten bada, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008, Legearen 92. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

p) Legedian ezarritakoarekin bat etorriz eta itunaren aldean adostasunez programa-kontratuan ezarritako gainerako kausak.

18. artikulua. Ituna azkentzeko prozedura eta azkentzearen ondorioak

1.- Alde batek eskatuta edo ofizioz has daiteke ekintza itundurako akordioa azkentzeko prozedura; ofizioz hasiz gero, erakunde itunduari entzunaldia emango zaio.

2.- Akordioa azkentzea erabakitzen duen ebazpenak adierazi behar du zein den azkentzeko arrazoa, noiztik aurrera jo behar den azkendutzat eta nola likidatuko diren aldean arteko betebeharrak ekonomikoak.

3.- Ituna azkentzen bada, erakundeak nahitaez eman beharko ditu zerbitzuak, ebazpenean jardura bukatzeko finkatutako egunera arte, eta, betiere, azkentzeko eskaera baino lehen administrazioak zerbitzura bideratutako erabiltzaileak dauden bitartean. Nolanahi ere, kasuan kasuko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira ebazpenaren aurka.

4.- Ebazpenean jardura bertan behera uzteko ezarritako egunetik aurrera izango ditu ondorioak azkentzeak, erakundeari entzun ondoren, eta, betiere, helburu hartuta erabiltzaileei ahalik eta kalte txikiena egitea, zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea bermatzea eta, hala badagokio, lekuz aldatzen laguntzea.

5.- Ekintza itundua azkentzeak ez ditu inola ere kontsolidatuko itundutako zerbitzuari atxikitako lan-kontratudun langileak, itunaren administrazio esleitzaileren langile gisa.

19. artikulua. Erabiltzaileentzako arreta-jarraitutasuna

1.- Tresna bat (ituna, kontratua, hitzarmena, zuzeneko kudeaketa publikoa) beste baten bidez ordezteak ez du inoiz kolokan jarriko zerbitzu bat jasotzeko eskubide aitortua duten erabiltzaileei arreta ematen jarraitzea; alde horretatik, ardura duen administrazioak beharrezkoa den estaldura juridikoa eta finantzarioa bermatuko du.

2.- Itun bat azkentzen den guztietan, bermatu behar da zerbitzua jasotzen jarraituko dutela horretarako eskubide aitortua duten erabiltzaileek; alde horretatik, beharrezkoak diren alternatibak ahalbidetuko dira, eta, horretarako, epe nahikoa ezarriko da, jardura bertan behera uzteko eguna zehaztean.

3.- Gainera, zerbitzua jasotzeko eskubide aitortua duten pertsonak erabiltzaile diren zentroan jarraitu ahal izango dute, errotze-printzipioari jarraituz, hala erabakitzen badute haiek, haien tutoreek edo legezko ordezkariak, kasuan kasuko zentroaren esleipena aldatzen ez den bitartean, betiere, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9.1 artikulua k letran ezarritakoaren esparruan. Horretarako, zerbitzuaren ardura duen administrazioak egoki ikusten dituen bitartekoak ezarriko ditu.

VI. KAPITULUA. LANKIDETZAKO ESPARRU-HITZARMENAK ETA -AKORDIOAK

20. artikulua. Lankidetzako esparru-hitzarmenei eta -akordioei aplikatu beharreko araubidea

1.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 69. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, euskal sektore publikoak hitzarmenak egin ditzake irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoko prestazio eta zerbitzuak emateko, baldin eta itun-araubidea aplikatzea komeni ez bada eta, betiere, hala arrazoitzen bada, erakundearen jardura edo dagokion prestazioa edo zerbitzua berezia, urgentziazkoa, berritzailea eta esperimentalak izateagatik. Nolanahi ere, itun-araubidearen ezaugarri eta betekizun guztiak aplikatuko zaizkie hitzarmenei, betiere haien izaerarekin bateragarriak badira. Bereziki, honako hauek:

- a) Aplikatzekoak izango dira modulu ekonomikoak arautzeko arau-xedapenak, sarbide-betekizunak eta diskriminazio positiboko neurriak. Gainera, hitzarmenak programa-kontratu bidez formalizatuko dira, lege horretako 68. artikuluan eta dekretu honetako 12. artikuluan itunetarako zehaztutako baldintzetan.
- b) Ez da aplikatuko dekretu honetako III. kapitulua, ituntze-prozedurari buruzkoa, aipatutako 12. artikulua izan ezik.
- c) Dekretu honetako 13. artikulua lehen apartatuko a) letra nahiz hitzarmenaren beste edozein eduki aldean arteko adostasunaren emaitza izango dira.

2.- Espedientean, azaldu beharko da zergatik erabaki den hitzarmenaz baliatzea, hain zuzen ere dekretu honetan aurreikusitakoa betetzen dela jasota gera dadin, eta, zehazki, egiaztatzeko itunen ordez hitzarmenak baliatzea gomendatzen duten egoerak betetzen direla, tresna bakoitzaren berezko izaera kontuan hartuta.

3.- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 12.3 artikuluan ezarritako kasuetan joko da erakundearen jardura berezizat.

4.- Zerbitzua berezizat joko da, orobat, baldin eta, artatutako pertsonen premia partikularretara egokitzeko eta arreta hobea eskaintzeko, zerbitzuak zenbait ezaugarri baditu, zerbitzu horretarako eta, halakorik bada, haren mota eta modalitateetarako aurreikusi ez direnak ez zorroan, ez eta, hala badagokio, zerbitzua garatzeko araudian ere. Hitzarmena formalizatuko bada, hura formalizatuko duen administrazioak jo behar du berezizat. Hitzarmenak, bestalde, 2 urte iraungo du gehienez.

5.- Zerbitzuak berritzaile eta esperimentalak izango dira, baldin eta artatu gabeko premiei erantzuten badiete eta/edo barnean hartzen badituzte Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zorroan sartuta ez dauden prestazio edo modalitateak. Halakoetan, hitzarmenak 2 urte iraungo du gehienez.

6.- Zerbitzu bat urgentziazkoa izango da, hura antolatzea beharrezkoa bada berehala arreta emateko ezaugarri edo kantitatez ezohikoak diren premiei. Halakoetan, hitzarmenak 2 urte iraungo du gehienez.

7.- Erakundearen jardura berezizat jotzen den kasuetan, hitzarmena urte anitzekoa izango da, gehienez ere 4 urte iraungo du eta berritu ahal izango da, hasieran ezarritako epealdia halako beste baterako, baldin eta zerbitzuari buruz balorazio positiboa egiten bada, dekretu honetan aurreikusitako azkentze-kasuetan sartuta ez badago, erakundeak bermatzen badu sarbide-betekizunak betetzen jarraituko duela, eta aurrekontu-kontsignazioa badago.

8.- EAEko administrazio publikoek lankidetzako esparru-akordioak egin ahal izango dituzte Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeekin, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 70. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Nolanahi ere, kontratu, hitzarmen edo itun bakoitza dagokion prozedura espezifikoari jarraituz antolatuko da.

9.- Figura juridikoa aldatzearen ondorioz irabazi-asmorik gabeko erakundearen izaera galtzen bada, hitzarmena azkenduta geratuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Hitzarmen eta kontratuen indarraldia

Zerbitzu bat emateko eskumena duten administrazio publikoek hartarako itun-deialdirik egiten ez duten bitartean, dekretu hau indarrean jartzen den egunean abian dauden hitzarmen eta kontratuak indarrean daudela ulertuko da, formalizatu diren aldirako, izan litezkeen berritzeak barnean direla.

Bigarrena.- Katalogoko zerbitzuak ematen diharduten erakundeekin itunak egitea

Katalogoko zerbitzu mota jakin bat ituntzeko lehenengo deialdian, itun-araubidera igarotzeko bidea errazteko, EAEko administrazio publikoek erakunde pribatu guztien eskaeren aldeko ebazpena emango dute, baldin eta sarbide-betekizunak betetzen badituzte eta zerbitzu hori ematen administrazioarekin lankidetzan jardundakoak badira, eta, betiere, aurrekontu nahikoa badago.

Hirugarrena.- Betekizun material, funtzional eta pertsonalekoak arautu gabe dituzten zerbitzueterako araubide iragankorra

Ezingo da exijitu administrazio-baimenaren eta zerbitzu-homologazioaren betekizunak betetzea, harik eta zerbitzuen betekizun material, funtzional eta pertsonalekoak araututa egon arte; bien bitartean, behin-behineko inskripzioa baino ezingo da aurkeztu. Indarrean dauden lankidetzeta-hitzarmenen indarraldiari dagokionez, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen seigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa bete beharko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehena.- Administrazio publikoek ekintza itunduaren araubidea garatzea

Administrazio bakoitzak ekintza itunduaren erregulazio espezifikoa gauzatu ahal izango du, dekretu honetan ezarritako esparru orokorrarekiko errespetuz, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraituz.

AZKEN XEDAPENA

Lehena.- Ordezko araubidea.

Dekretu honetan aurreikusten ez den guztirako, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean aurreikusitakoa aplikatuko da, eta, administrazio-prozeduraren arloan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean bildutako xedapenak.

Bigarrena.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ekoaren(e)(a)n.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ